




MUTUAK EUSKARAZ

APIRILAK 7
OSTEGUNA

20:15

TXOLARREAK
(SPARROWS, 1926)

APIRILAK 14
OSTEGUNA

20:15

ALFERRONTZIA
(TIRE-AU-FLANC, 1928)

APIRILAK 21
OSTEGUNA

20:15

METROPOLIS
(METROPOLIS, 1927)

APIRILAK 28
OSTEGUNA

20:15

OPERA KO MAMUA
(THE PHANTOM OF THE OPERA, 1925)

Laguntzaileak:

TXOLARREAK

Txolarreak (*Sparrows*) 1926an filmatu zuen William Beaudine-k, eta bere filmografia ugaria bada ere (la-burmetraia franko eta ehunda hirurogeita hamabost luzemetraia baino gehiago) filme hau da, **Little Annie Rooney** (1925) eta **The Old Fashioned Way**-z gain (1934), aipatzea merezi duen bakarra.

Izaera kritikazale zorrotzekoa zen eta hain diru-aurreztuzalea non egun gutxi batzuen buruan filmatzen baitzituen bere pelikulak eta berrogeita hamar mila dolar baino gutxiagoko aurrekontuaz. Beaudine Hollywoodeko aitzindarietako bat izan zen, 1915 urtearen inguruan debutatu zuelarik. Bere zine-poetika berezia agindu labur honetara biltzen zen: "*Lehenengo harraldia da balio duena*". Kantitatea kalitatearen aurretik jartzeko zuen joera hori izan daiteke, burutu zuen filmografia hain zabala izan arren, gaur egun bere filmeez inor ez gogoratzeko arrazoia.

Hamazazpi urte zituela David Griffith-en "mandatu-mutila"rena egiten hasi zen hartan, ez zitzaion askorik bururatuko Beaudine gazteari zirkunstantzia honek, gerora, bere zinegile-karreraren izango zuen garrantzia. Griffith-ek inspirazio eta zine-sena handiak zituen eta ekarpen garrantzitsua egin zion zine-lengoiari; izan ere baliabide tekniko berriak -edo orduarte funtzio dramatikorik ez zutenak behinpehinerabiltzen hasi baitzen, hala nola kameraren ikuspuntu ezberdinak eskaintzea eszena berean zehar, lehen planoen erabilpen dramatikoa, objektu-txertaketa, *flash-back*-a, argi artifizialaren erabilera, kameraren mugimenduak nahiz ekintza paraleloak. Berrikuntza hauekin erritmo harrigarria eta koherentzia narratiboa eman zizkien bere zine-lan guztiei.

"Griffith estila" azkar asko bereganatu zuten beste zenbait sortzailek eta Beaudine hauen artean; azken hau, Griffith-ekiko harremanari esker, besteak beste, "zine-sukaldea" barne-barnetik ezagutzen zuela iritxi zen beraren obrak zuzentzeko garaia.

Txolarreak filmean, dagoeneko, Griffith-i ikasitako zenbait elementu erabiltzen ditu, garaiko modak eskatu bezala melodrama kutsu nabarmena zuen foiletoi gisako argumentu batean.

Istoriaa abeletxe bakarti eta sartzin batean gertatzen da, zingira baten ondoan, aurrean jartzen zaien edozer irensteko prest dauden kokodriloak eta guzti badituena.

Argumentua xumea da: familia gaizto batek bahitutik ditu haur gaixo batzuk, zeinen artean umezurtzak ere badiren. Familia honek haurren senitartekoengandik zenbait diru-kopuru jasotzen baditu ere, azken hauek ez dute haurrak ikusteko egokierarik. Istoriaan zehar abeletxearen jabeen zitalkeria eta hurrek bertan daramaten zorigaitzoko bizimodua erakutsiko zaizkigu, kutsu dramatikoko zenbait sekuentziaren bidez, zeinetan egoera komikoak ere ez diren falta. Pasadizo guztion amaierak aurkakoak gertatuko zaizkie Molly otzan eta xaloa gidari duten hurrei. (Griffith-ek, hain zuzen, idorotako Mary Pickford aktoresak jokatzen du



Molly otzanaren rola). Espero zitekeen bezala, estilo moralizatzaile eta negar-eragilea duen filme honen amaiera zoriontsua izango da haurrentzat: abeletxetik ihes egiten dutela gaiztoak, abeletxea gordetzen duen zakurtzarra eta guzti, atzetik badoazkie ere, haurretako batek poliziari abisua pasatzea lortu du; horrela, zenbait ekintza paraleloren bitartez, *in crescendo*-ko suspentse batean sartuko gara, zeinean ez diren faltako haurren ihesa oztopatzen duten zenbait egoera, hala nola hondar mugikorak, kokodriloekiko topaketa eta beste. Azkeneko eszenetan bi itsasontziren arteko pertsekuzioa ikusiko dugu, zingiran zeharrek balizko nabigazioan, zenbait efektu berezi eta guzti.

Sparrows-en, lehen aipaturiko Griffith-en ekarpenak ikus ditzakegu (panoramika nahiz *travelling*-a izan ezik): kutsu dramatikodun lehen planoak, kameraren ikuspuntu ezberdinak eszena berean zehar, objektu-txertaketa, *flash-back* bat (filmearen bukaeran), ekintza paraleloak, xehetasunezko planoak...

Aktoreekiko lanean nolabaiteko landugabetasuna sumatu daiteke, bai eta keinuen gehiegikeria ere, zine mutuaren garaiko filmeetan ohizko diren kutsuak, jakina.

Arantxa Lazkano

ALFERRONTZIA

Jean Renoirrek 1928. urtean zuzendu zuen **Alferrontzia**, bere seigarren luzemetraia. Zinemagile frantsesak **La fille de l'eau** obra nostalgikoa, Emile Zola bere idazlerik gogokoenaren *Nana*-ren bertsio ederra eta **La petite marchande d'allumettes** gazi-goza Andersen-en ipuin klasiko batean oinarritutakoa filmatu zituen lehenago, baina horien estreinaldiak ez zion inolako arrakasta komertzialik ekarri. Egoera horri aurre egiteko edo, komertzialtasun aldera jo zuen Renoirrek eta bide komertzial horretatik barrena kokatu beharko genuke, urteen poderioz ondu egin bada ere, **Alferrontzia** izeneko komedia hau. Renoir, azken batean, zinema komertzialaren erdi-erdian kokatu zuten hogeiko hamarkada bukaerako kritikari gehientsuenek.

Alferrontzia oso lan atipikoa da zuzendari frantsesaren filmografia aberatsean, atipikoa bere nortasun komiko amerikarrari dagokiola, batez ere. Etxean egin-dako produkzio horietakoa da, oso etxekoa, eta zinema lau bider pantailaratutako bodebil zahar baten moldaketa kurioa baino ez da. Pelikula, iritziak iritzi, Charlie Chaplinen estiloan oinarrituta dago eta hark umorea egin eta algara eragiteko zuen metodoa du aintzat. Renoirrek egundoko mirespena izan zuen beti harekiko. "*Chaplin bezalakoxe izan nahi nuke eta hark bezalaxe errealtatetik aldegin*", aitortu zuen halako batean, esate baterako, zuzendari frantsesak. Eta adierazi ezezik bere ere egin zituen, pelikula honetan, umore eta ukitu "chaplindarrak". Endreduzko sekuentziak, muturrekoak eta estropozoak Chaplinen eskolakoak dira, amerikarregiak zuzendari frantses batentzako. Horrexegatik diot, hala diodanean, filme hau atipiko samarra dela, nahiz eta urte batzuk lehenxeago ere, Mary Pickforden zenbait ekoizpen erabili zituen oinarri. "*Artista posible batentzat irudimena arriskurik larriena*" zela uste zuen zuzendari frantsesak.

Nolanahi dela ere, **Alferrontzia** hau Renoir da, Renoir garbia, honek ondoko pelikuletan landu zituen problematika, giro eta, batez ere, pertsonaiak antze-man baititzakegu hemen lehen planotik beretik hasita. Filmeak, hitz bitan esanda, soldadutzara joan behar duen aristokrata gazte baten historia jasotzen du. Aristokrata horren familiak armadako buruak gonbidatuko ditu, aldeztu aurretik, koartelean semea zintzo eta kontu handiz zain dezaten. Aristokrata etxeko zerbitzariarekin batera joango da koartelera, eta han, jakina, denetarik gertatuko da, harik eta emakumeak agertu eta endredu guztiak egoera zoriontsu baterako bidea hartuko duen arte. Renoirren ohizko elementu guztiak ditugu, beraz, aurrean: soldaduak, aristokrata, zerbitzariak...

Goian aipatu dudana bezala, estraineiko eszenatik beretik erakutsiko digu zuzendariak ondoko pelikula gehienetan maisutasunez landu zituen zenbait gora-behera: batetik, giza klaseen arteko desberdintasunak, eta bestetik, gizon-emakumezkoen interesek desber-



dintasun horiei gain hartzen dietela, **La grande illusion**-en erakutsi zuen legez. Renoirrek, bada, ondorengo obrari buruzko arrastoa utzi zuen bidean, pelikula komiko honen bitartez. Lehendabiziko planoan, adibidez, zerbitzariak agertuko zaizkigu, elkarri musuka eta ondo helduta; hurrengoan, gelako toki bere-tik hartuta, etxeko nagusiaren izaera hotza azalduko. Panorama bitxi horrek, **La regle du jeu** maisulanean askoz ere trebezia eta sakontasun handiagoz landutako egoera somatzera garamatza, hau da, nagusien infidelitatea eta zerbitzarien pasioa nabarmentzera. Filme batek, tokitik jota bada ere, bestera eramango gaitu detaile eta iradokizunen bitartez. Arrazoi zuen Renoirrek: "*Guztiok filme bakarra egiten dugu geure bizitza osoan*".

Pelikula zoragarri eta luze horren zati irregular eta komikoa besterik ez da **Alferrontzia**, arina bere komikotasunean eta oso premonitorioa bere ondorio barregarrien bidez. Obra inozoa da, garai mutuak tarte-ka bizi izan zuen lainotasun baikorraren biktima, baina, oraindik ere, algara pozgarri eta beteak eragin ditzake. Bere umore bisuala aberatsa baita.

Andres Gostin

A black and white collage of film stills from the movie 'Metropolis'. The central image shows the iconic robot Maria. Other scenes include a futuristic city at night, a woman in a dress, a man in a suit, and a large clock face. The word 'METROPOL' is written in large, stylized letters across the top.

METROPOLIS: BOTEREA IRUDIETAN

Langileak mantso dabilta lurrera begira. Hesian zehar, batzuk sartu eta beste batzuk ateratzen ari dira: txanda aldaketaren unea da. Lur azpian ari dira lanean, denak batera, mugimendu akonpasatuez, ia militarrez. Bat, orratz handietatik zintzilik, tenperatura igo ez dadin ahalegintzen da. Goian pribilejiatuen hiria altxatzen da, etorkizuneko paradisua. **Metropolis**-en trenak zerutik gertu eta abioiak etxe erraldioen artean doaz.

2.026. urteko hiria imajinatu zuen Fritz Lang-ek. Klase banaketa mugetaraino eraman zuen, parabola filosofikoa eginez: buru planifikatzaile eta esku eraikitzailearen artean, bihotza da bitarteko.

Lurraren errailetan bizi diren langile-esklabuen artean, Maria-k etsipena predikatzen du. Emakume-aingeru honen erakargarritasunaz baliatu nahian, nagusiak itxura berbera duen errobota sortarazten du. Ez du horrela langilegoa kontrolatzea lortuko, matxinada eta hondamena derrigorrez iritsiko dira, baina azkenean, bihotza izango da nagusia eta langileen arteko bitartekoa: Maria eta nagusiaren semearen arteko amodioak bukaerako besarkada ekarriko du.

Sinplezia, umekeria, mesianismoa... horrelakoak eta haundiagoak aipatu izan dira **Metropolis**-en mezua aztertzerakoan. Batzuk, Thea von Harbou, Lang-en emaztea zenari bota diote errua, berak idatzi bait-

zuen jatorrizko nobela. Lang bera kritikoetan kritikoa izan zen mezu liriko honekin.

Dena dela, inork ez du sekulan zalantzan jarri filmean balioa, eta gu ere, parabola morala baino, **Metropolis**-en irudi ahaztuezinak gordetzea dugu nahiago. Espresionismo alemaniarraren bitxi hau zinema fantastikoaren aintzindari bihurtu da: nor ez da hiri hone-taz gogoratu **Blade runner** ikustean?

New York hirian aurkitu omen zuen Lang-ek inspirazio iturria **Metropolis** egiteko. Irudimen handiz megalopolis izugarria sortarazi zuen, eta dekoratuetan eta eszenaratzean antzematen da zenbateraino zen perfektzionista Fritz Lang. Bere estiloko etorkizuneko mundua eraiki zuen: monumentalista, epikoa...

Zentsurak eragindako mozketen ondorioz, jatorrizko zenbait eszena betirako desagertu zen. Ondoren, **Metropolis** berregina izan zen, kolorea eta musika ere erantsi zitzaizkiolarik. Baina guk ziklo honetan zuri-beltzaren majia osoaz ikusi ahal izango dugu, argiak eta itzalen arteko jokuaz gozatuz, eta Lang-en irudi mutuak "entzuteko" ohorea ere izango dugu. Horrela dagokio benetan obra honi, pinturan sortutako artista baten obra bait da, boterea begietan zuen gizonarena, irudien maisu batena.

Rosa Zufia

MUNSTROAREN BAKARDADEA

Ehun urte ozta-ozta bete duen zazpigarren arteak al-daketa ugari izan du bere bilakaera laburrean, baina azken boladan gehien aipatzen direnak arlo teknikoari dagozkien: efektu bereziak, dolby soinua eta abar luze bat. Uholde honen azpian zinea pitin bat kokildu eta artifizioz jantzi da. Horregatik bitxi samarra irudituko zaigu filme bat pianoaren laguntza soilaz ikustea, baina zineak soinua lortu aurretik zine aretoek piano edo organujole bat besterik ez zuten giroa sortzeko; gaur egun ditugun bitartekoei erreparaturik, laguntza eskasa, agian, baina gauza bera gertatzen da Lon Chaney-ren pertsonaiekin zineak orain eskaintzen dizkigun munstro odoltsu eta nazkagarriekin alderatzen badugu. Bera izan zen, makilaia eta gorputzaren itxura aldatuz, sinesgaitza zena irudi bilakatu zuen lehena. Hala ere ume joko bat dirudi honek zine fantastikoak hartu dituen bideak bere alboan jartzen baditugu. Baina ez pentsa filme zaharkitu baten aurrean gaudenik. Lan honen baitan egun erabiltzen diren zenbait konzeptu eta egitura aurkitzen ditugu; izan ere, zalantzarik gabe, zenbait arlotan betiko moldeak erabiltzen baitira oraindik.

Froga gisa hor ditugu Gaston Leroux-en nobelan oinarriturik egin ziren beste hiru moldaketak. Arthur Lubin-ek zuzendu zuen bigarrena, baina zalantzarik gabe Vincent Price-k egin zuen hirugarrena aurrekoa baino interesgarriagoa izan zen. Azkenik Brian de Palma-k moldaketa modernoagoa burutu zuen eta **Paradisuko mamuan** operaren ordezkia rock musika jarriaz, istorioaren alde parodikoa jorratu zuen.

Eta nork zuzendu zuen lehenengoa? Filmean fitxa teknikoa begiratzaz gero, Rupert Julian delako batek zuzendu zuela ikus dezakegu. Jatorriz Zeelanda Berrikoa bi filme aipagarri ditu bere baitan, baina bata zein besteak gehiago zor diote besteen lanari. **Operako mamua**-k Lon Chaney-k Universal etxerako egin zituen ekoizpenen ezaugarri guztiak ditu eta zuzendariak antzezleak jarritako urratsak jarraitu besterik ez zuen egin.

Lon Chaney Hollywoodeko zine fantastikoaren aitzindaria izan zen. Tod Browning-ekin batera Universal etxeak sortutako lehen munstro bildumaren egilea, bere talentuari zor dizkiogu gerora jarraituak izan diren hainbat pizti. Aurpegia eta gorputza aldatzeko zuen trebetasunari esker, bere sorkuntzek harrera paregabea izan zuten. Bela Lugosi eta Boris Karloff izan ziren garai haietako beste munstro sortaile eza-gunenak, baina Chaney-k jarri zituen lehen urratsak. Bikote gormutu baten semea, gurasoekin aurpegi eta gorputz keinuez mintzatuz garatu zuen gero ospea ekarriko zion trebetasuna. Antzerkian hasi eta zinean bukatu zuen gaiztoen paperak eginez. Bere bizitzan oinarritutako **Mila aurpegiaren gizona** filmean ikus zitekeen bezala, makilaia eta gorputzeko gihar guztiak bihurtzeko zuen abilezia izan ziren bere lagun nagusiak, azken arlo honetan James Cagney-ren lanak jatorrizkoarekin zer ikusirik ez izan arren.

Hala ere bere pertsonaiak ez dira oso "beldurgarriak". Gehienetan istripu baten ondorioz desitxuratutako giza-jokoak ziren, gaiztoak izatera kondenatuak, gorputzaren itsusikeriak arimaren hondamena ekartzen bait zuen, jendearen ikustezinak bide okerrera bultzatzen duen modura. Jendearen higuina orduoro jasan ondoren, nekez pentsa daiteke munstroek begirunerik izango dutenik horrela izendatu eta bere ondotik bota dituen gizartearekiko. Herra bi aldetakoa da, baina gizartearen erantzuna ikusirik zaila da gaiztoena zein den erabakitzea. Izan ere kupida gabe hilko dute mamua.

Itxura tamalgarri horrekin gaua, iluntasuna, babesleku bilakatzen dira argi eta itzalen jokoa sortuz. Lon Chaney-ren filmeetan alemaniar egile espresionistek Hollywoodea eramandako estiloaren eragin nabarmena aurki daiteke.

Mamuak ez du aurpegiarik, baina bai bihotza eta bere grinak azken muturreraino areagotuz, berez lortu ezin duena indarrez lortu nahiko du. "Notre-Dameko konkorduna" aipatutakoaren adibide adierazgarria da. "Operako mamua" bezala soto eta zuloetan bizitzera kondenatua, ederraren amodioa lortzea izango da bere helburu nagusia. Alferrik, ederrak ez bait du itxusikeria onartzen eta Disney etxearen ekoizpenetan ez bezala, bihotzaren taupadek ez dute piztiarekiko kupida ekarriko, nazka besterik ez.

Aldi berean ederrak bere handinahia mamuari esker bete ahal izango du, baina inork ez dizkio eskatuko deabruarekin egindako tratua kontuak. Mary Philbin-en pertsonaiak Operan kantatzeko aukera munstroari esker lortuko du eta ondorioak ondo ezagutu arren ez du bere aukera alde batera utziko. Edertasuna kasu honetan errugabetasunaren parean jartzen da eta itxukeria gaiztakeriaren sinonimoa bilakatzen da. Ospeak ordain garestia du, baina garai hartan mamuaren balizko zintzotasunak ez zuen lekurik ikusleen bihotzetan.

Baina ederra eta piztia edo deabruarekin egindako tratua ez dira filmean azaltzen diren mito bakarrak. Lon Chaney-k agerpen ikaragarria du filmean erdialdean "Heriotz Gorria" pertsonaia Operako festan erakutsiz. Gorritz tindatutako fotogramen artean, bildutakoen ikara eragingo du. Irudi paregabe hau berreskuratuz berrogei urte beranduago Roger Corman eta Vincent Price-k Poe-ren istorioaren moldaketa paregabea burutu zuten.

Hala ere filmeko une aipagarrienak munstroak bere maskara galtzen duenean eta Operako gailurrean ederra eta bere maitalearen arteko elkarrizketa jarraitzen duenean aurkitzen ditugu. Lon Chaney-k erakustaldi paregabea egiten du bi une horietan, aurpegia itxuraldatuz lehenengoan eta bere gorputz bihurtua opera gailurreko gizairudiekin nahastuz bigarrenean.

Agian erakargarriago izango duzue kolore biziz eta efektu bereziez zamatutako azken ekoizpena ikustea, baina ez pentsa soinu eta argien milaka watioek pianoaren soinua eta txuribeltzaren itzal jokoa baino zirrargarriagoak izango direnik.

J. J. Iribar



Apirilak 7, osteguna, 20:15

Txolarreak (*Sparrows*, 1926)

EEBB. **Zuzendaritza:** William Beaudine.

Ekoizpena: United Artists. **Gidoia:** Winifred Dunn, George Marion Jr., C. Gardner Sullivan.

Argazkiak: Charles Rosher, Hal Mohr, Karl Struss. **Muntaia:** Harold Mc Leron. **Arte-**

zuzendaritza: Harry Oliver. **Aktoreak:**

Mary Pickford, Roy Stewart. Mary Louise Miller, Gustav von Seyffertitz. **Iraupena, g.g.b.:**

84 min.

Grimes jaun-andreek eta euren seme Am-brosek abeletxe bat daukate Estatu Ba-tuen hegoaldean, non abandonaturiko haurrak "hazten" dituzten. Hauetako nagu-siena, Mama Mollie, haurrak Grimestarren basakeriatik ahalik hoberen babesten saiatzen da, baina ahaleginok gora behe-ra, umeek tratu txarrak jasaten segitzen dute, leku galgarri hartatik inoiz irteteko itxaropena galdua dutelarik

Apirilak 14, osteguna, 20:15

Alferfrontzia (*Tire-au-flanc*, 1928)

FRANTZIA. **Zuzendaritza:** Jean Renoir.

Ekoizpena: Néo Film - Pierre Braunberger.

Gidoia: Jean Renoir eta Claude Heymann.

Argazkiak: Jean Bachelet. **Dekortatuak:** Eric Aaës. **Aktoreak:** Georges Pomiès, Mi-chel Simon, Jeanne Helbling, Félix Oudart,

Jean Storm. **Iraupena, g.g.b.:** 89 min.

Jean Du Bois d'Ombelles gazteak, izeba Mada-me Blandin eta bi lehengusinekin betidanik bizi izan denak eta azken hauetako baten, Solan-geren, senargaia denak soldaduzkarako deia jaso du. Albiste honek txunditurik uzten du fa-milia eta Madame Blandinek Joseph, Jeanen mirabea, ere soldaduzkara joan dadila erabaki-tzen du. Gauzak, ordea, okertu egingo zaizkio Jeani koartelean, non señoito pinpirintzat daukaten.

Apirilak 21, osteguna, 20:15

Metropolis (*Metropolis*, 1927)

ALEMANIA. **Zuzendaritza:** Fritz Lang eta Thea von Harbouk, azken honen eleberrian oi-narrituta. **Argazkiak:** Karl Freund, Günther Rittau. **Argazkietako efektu bereziak:** Eu-gen Schüttfan. **Arte-zuzendaritza:** Otto

Hunte, Erich Kettelhut, Karl Volbrecht. **Eskul-turak:** Walter Schultze-Mittendorf. **Jantziak:**

Aenne Willkomm. **Aktoreak:** Alfred Abel, Gustav Frölich, Brigitte Helm, Rudolf Klein-

Rogge. **Iraupena, g.g.b.:** 120 min.

XXI. mendeko Metropolis hiri erraldoian maki-natzar batzuek egiten dituzte lan guztiak langile esklabu andana batek gidatuta. Langileok lu-rrazpiko auzo labirintozkoetan bizi diren bitar-tean, klase aginteduna osatzen duen gutxien-goia lurgainean bizi da "betiereko lorategietan". Freder-ek, hiri-jabearen semeak, Maria ezagu-tu eta Metropoliseko lurrazpiko munduaren txi-rotasuna eta sofrikarioekin topo egiten du. Ka-pitala eta lana maitasunaren indarrak baturik gertatuko dira.

Apirilak 28, osteguna, 20:15

Operako mamua (*The Phantom of the Opera*, 1925)

EEBB. **Zuzendaritza:** Rupert Julian.


Ekoizpena: The Universal. **Gidoia:** Ray-mond Schrock-ek, Gaston Leroux-en ele-berri homonimoan oinarrituta. **Argazkiak:**

Virgil Miller. **Aktoreak:** Lon Chaney, Mary Philbin, Norman Kerry, A. Gibson

Gowland, Arthur E. Carewe. **Iraupena,**

g.g.b.: 76 min.

Kristina opera-ableslari gaztea, izkutuko pertsonaia batek lagundu eta, maila gore-netara iristen da. Pertsonaia misteriotso hori gizon maskaratu bat da, neskari se-nargaia uzteko eta musikan murgiltzeko eskatzen diona. Neskak onartu egiten du, baina "mamua", traizioa sumaturik, neska bahitu eta Pariseko Operaren lurrazpikoe-tan gorde egiten du.



Lau zine-emanaldi, zuzeneko musikaz lagunduta, **JOSETXO FERNANDEZ DE OR-TEGA JAUREGIREN** eskutik.

Josetxo Fernandez de Ortega Jauregiren musika-ibilaldia lau urterekin hasi zen, jolasteko piano bat erregalatu ziotenean.

Bere ibilbidean zenbait taldetan hartu du parte, *Ganbara*-n adibidez. Une hauetan, baina, fase berri batean dago, bakarlari gisa lan egiten duelarik.

Iaz, **Donostiako Zinema Fantastiko eta Ikarazkoaren IV. Astearen** barruan proiektatutako **Aelita** filme klasiko sobietarraren akonpainamendua egin zuen, zuze-nean, harrera beroa izan zuelarik bertara bilduriko ikusle ugarien aldetik.